



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2019ko ABENDUAREN 26an EGINDAKO OHIKO  
BILKURAREN AKTA**

2019ko abenduaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK : Shrabani Aranzabe Pita Zubillaga  
Unai Sorarrain Urruzola  
Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Gillermo Jesus Otegi eta Concepcion Soria Legua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 2. Fakturak eta ordainketak.**
- 3. 2020 ekitaldirako udal aurrekonturen espedientearen hasierako onespina, hala bada.**
- 4. Udal garbitzailearen ordezkapenerako lanpoltsa osatzeko onespina, hala bada.**
- 5. Irabazi xederik gabeko erakundeek eginiko diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6. 2/2019 Kreditu aldaketaren hasierako onespina, hala bada.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galdera eta mozioak.**

- Mozioa: “Orain Presoak!!! Euskal Presoak Euskal Herrira”



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

.../...

### **LEHEN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 166/2019tik 200/2019ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ACSOL	510,22
ACSOL	76,82
ACSOL	189,30
ACSOL	91,75
ACSOL	75,48
ACSOL	156,72
ACSOL	43,39
ACSOL	51,20
ACSOL	39,24
ACSOL	124,62
GASTEARENA	135,34
EBA ERKIZIA	1.709,49
MOVISTAR	186,38
SOLRED	60,10
ARGITU	163,65
TOLOMENDI	163,95
CALCOSA	181,50
RECAMBIOS IBARRA	6,32
ANTONIO ELOSEGUI	38,12
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	116,31
CARPARSORO INDUSTRIAL	47,07
OBBTKN	206,70
TINKO FILMAK	435,60



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

EUSKALTEL	115,99
PLASTICOS TECNICOS	355,00
TOLOMENDI	543,45
ACSOL	168,40
ACSOL	84,03
ACSOL	54,40
ACSOL	303,66
ACSOL	189,92
ACSOL	41,59
ACSOL	34,11
ACSOL	647,59
ACSOL	124,55
PAULO AZKUE	115,00
CORREOS	7,92
MOVISTAR	56,02
IBERDROLA	33,28
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	281,00
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	63,00
AINHOA RECONDO	261,38
IRATZE LORAZAINTZA	5.429,21
RECAMBIOS IBARRA	50,82
RECAMBIOS IBARRA	8,80
COPY TEC	37,11
IZADI LABORATEGIA	152,94
NORTEGAS	197,22
NORTEGAS	119,00
NORTEGAS	222,28
EMAGIN	124,00
IKER UGALDE	1.210,00
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	347,00
PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	355,00
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA	150,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **16.692,94** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

**HIRUGARREN PUNTUA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## 2020 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2020 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Alkizako Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2019ko abenduaren 19an egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Alkizako Udaleko 2020 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 601.978,40 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

<b>SARRERAK</b>	<b>601.978,40€</b>
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	68.310,00
2. Kap. Zeharkako Zergak	6.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	59.315,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	346.364,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	6.110,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	115.879,40
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00

<b>GASTUAK</b>	<b>601.978,40€</b>
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	221.110,50
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	168.742,40
3. Kap. Finantza gastuak	20,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	91.972,51
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	120.132,99
7. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	0,00

BIGARRENA.- 2020ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

**LAUGARREN PUNTUA**

**UDAL GARBITZAILEAREN ORDEZKAPENERAKO LANPOLTSA OSATZEKO ONESPENA, HALA BADA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik Herrian zehar garbiketa lanak egiten duen udal langilearen ordezkapenak egiteko lan poltsa bat osatu nahi duela Alkizako Udalak.

Ikusirik aipaturiko lan poltsa hori osatzeko, 2019ko azaroaren 26an deialdi bat egin zela. Bi pertsonak izena eman dutelarik.

Ikusirik, ordezkapenak egiteko lehentasuna, langabezian daudenak izango dutela, azken hau momentuan ziurtatuko delarik. Biak langabezian egongo balira, zozketa egingo da.

Ikusirik, Lan poltsak urtebeteko iraupena izango duela eta rotatiboa izango dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udaletxeko garbitzailearen ordezkapenak egiteko ondorengo lan poltsa osatzea:

J.G.E. eta B.A.T.

Ordezkapenak egiteko lehentasuna, langabezian dagoenak izango du. Biak langabezian egongo balira zozketa egingo da. Ondoren, lan-poltsa rotatiboa izango da.

Lan poltsak urtebeteko iraupena izango du.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdun guziei ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

**IRABAZI XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2019 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek Alkizako Udaletxean aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaerak.

Ikusirik 2019 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik Udalbatza honek aho batez ondorengoa,



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Irabazi asmorik gabeko ondorengo erakundeei diru-laguntza esleitzea:

- Medicos sin fronteras	125,00 euro.
- Zaporeak	125,00 euro.
-Amnistia Internacional	125,00 euro
-Asparnogi	125,00 euro

GUZTIRA 500,00 euro

BIGARRENA.- Dagokion gastua onestea eta bere ordainketa egin dadila agintzea 481.334.00.01 kontu sailaren kargura.

#### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **3/2019 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Udala honen 2019 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko 3/2019 kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.211.933.00.01 2019	herriko ostatua konponketak	6.000,00	2.300,00	8.300,00
1 0000.221.153.40.04 2019	ERREGAI ETA KARBURANTEAK	1.700,00	230,00	1.930,00
1 0000.221.320.00.99 2019	barnetegiko mantenimendu gastuak	2.500,00	200,00	2.700,00
1 0000.221.920.00.09 2019	garbiketa produktoak	1.500,00	200,00	1.700,00
1 0000.222.920.00.01 2019	udala telefono gastuak	3.100,00	260,00	3.360,00
1 0000.226.920.00.04 2019	aholkularitza juridikoa	1.005,00	2.100,00	3.105,00
1 0000.421.162.30.01 2019	TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA TRATAMENDUA	5.500,00	2.780,00	8.280,00
1 0000.227.150.00.07 2019	AHOLKULARITZA HIRIGINTZA	18.000,00	2.700,00	20.700,00
1 0000.227.920.00.07 2019	i.k.t teknikaria	1.900,00	59,00	1.959,00
1 0000.227.929.00.09 2019	FORU ALDUNDIA. DIRUBILKETA	500,00	300,00	800,00
1	OILATEGITIK	1.500,00	1.304,00	2.804,00





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

0000.481.330.00.01 2019	DIRULAGUNTZA			
1 0000.221.165.00.01 2019	Argi hornidura: Argiteri publikoa	2.600,00	14,34	2.614,34
1 0000.226.330.00.06 2019	Iharduera soziokulturalak	2.000,00	14,15	2.014,15
<b>GUZTIRA</b>		47.805,00	12.461,49	60.266,49

<b>Kod.</b>	<b>Partida</b>	<b>Azalpena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
d	1 0000.421.162.20.01 2019	TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA KUDEAKETA	2.780,00
a	2 0000.870.000.00.01 2019	KREDITU GERAKINA 2018	9.681,49
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>12.461,49</b>

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

“

**7.1. MULTIFUNCIONAL COLOR HP E77825DN” EROSTEKO  
HORNIKETA KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA**

Alkizako Udalak fotokopiadora ( multifunción) berria behar du.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Alkizako Udalak ez ditu baliabide pertsonal ezta materialik horniketa hau eskuratzeko.

Ikusita, hiru enpresei eskatu zaiela aurrekontu bat horniketa honentzat, onuragarriena Maquelsa enpresak aurkezturikoa delarik. Ondorengo eskaintza egiten du:

“Multifuncional color HP E77825DN  
PRECIO ESPECIAL RENOVACION COMPETENCIA 1.875,00€  
COSTE IMPRESIÓN: 0,0055€/Copia-impresión en B/N y  
0,04€copia-impresión en COLOR  
RENTING 60 meses=35,65€/MES  
INSTALACIÓN: Incluida  
GARANTIA: 7años  
12.000copia en B/N y 4.800 copias en COLOR sin coste.”

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. Horniketa kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Horniketa kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

MAQUELSA enpresarekin, Larraulgo Udalak 2019. urtean zehar ez du 15.000€ko horniketa kontratuen urteko muga gainditu.

Beraz, Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: Maquelsa enpresari, Multifuncional color HP E77825DN erosketa esleitzea, renting bidez ordainduko delarik 60 kuotatan, hileko 35,65€ (BEZa kanpo), 1.0000.204.920.00.01 kontu sailaren kargura "Fotokopiagailuaren renting-a".

**ZORTZIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **8.1. MOZIOA: “ORAIN PRESOAK!!!!!!!!!!!!EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA”**

Ikusirik, Alkate-Lehendakari jaunak aurkeztu duela Orain presoak!!!Euskal presoak Euskal Herrira mozioa, non ondorengo dioen:

### **“ORAIN PRESOAK! EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA”**

Urtero bezala, neguan murgildu garen honetan, gabon jaietako egun bereziak iritsi zaizkigu Aiztondo bailarara. Urteko azkenak eta urte berriko lehen egunak, senide eta lagunekin egoteko, Olentzerori ongi etorria egiteko, aspaldi ikusi gabeko pertsonak berriz ere ikusteko, elkar besarkatzeko, herriko giroaz gozatzeko, otordu goxoak egiteko... egunak izan ohi dira. Era berean, honako hauek herritik urrun daudenak eta gure artean izaterik ez dutenak gogoan izateko egunak ere badira.

Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizako udal ordezkariok, euskal presoek eta beren senide eta lagunak pairatzen dituzten eskubide urraketak gaitzesten ditugu eta espaniar eta frantziar Estatuei eskubide hauek bermatzeko neurriak har ditzatela eskatzen diegu. Herritarren gehiengoak bat egiten du aldarri horrekin eta horregatik beharrezkoa iruditzen zaigu erakunde publikoak eta herritarrak bat eginda kalera irtetea eta mobilizatzea.

Aiztondoko udal ordezkariak bat egiten dugu Sare herritarrak martxan jarritako “ Orain presoak” herri dinamikarekin eta une hauetan gure babesa adierazi nahi diogu euskal presoek senideak biltzen dituen Etxerat elkarteari ere.

Honenbeztez, datorren **abenduaren 31an arratsaldeko 18:30, Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik irten eta Amasa-Villabonako Errebote plazan amaituko den manifestazio isila** deitzea erabaki dugu.

Hauek dira manifestazio honen bidez, Aiztondoko udal ordezkariak espaniar eta frantziar Estatuei helarazi nahi dizkiegun oinarrizko eskaerak:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **1-Dispertsioa amaitzea eta euskal presoak euskal herriratzea**

Beharrezkoa da presoek eta batez ere beren familia eta lagunei bidegabeko zigor erantsia ezartzen dien sakabanaketa politikarekin behin betiko amaitzea.

### **2- Gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoek kaleratzea.**

Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek espetxetik irten eta etxetik hurbil dagoen erietxean egoteko eskubide osoa dute, hau espainiar legedian bertan jasota dago. Beraz, eskubide hau errespetatzea eta larri gaixo dauden presoek berehalako kaleratzea exijitzen dugu.

### **3- 70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea.”**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkate-Lehendakari jaunak aurkezturiko ORAIN PRESOK!  
EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA mozioa bere osotasunean onestea.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.25 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

IDAZKARIAK